Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Onartu
Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu hemen (https://goierri.hitza.eus/cookieak/).

Bihotz-biriken suspertze teknika irakatsiko du DYAk, etzi

(https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?u=https%3A%2F%2Fgoierri.hitza.eus%2F2018%2F05%2F31%2Fbihotz-biriken-suspertze-teknika-irakatsiko-du-dyak-etzi-2%2F)

Ordizia (https://goierri.hitza.eus/herriak/ordizia/) Gizartea (https://goierri.hitza.eus/gaiak/gizartea/)

Bihar, ostirala, eta Zure eskuek bizitza bat salba dezakete lemapean, DYAk zazpigarren urtez jarraian, Bihotz Biriken Suspertze Eguna ospatuko du. Sentsibilizazio kanpaina honekin bihotz-biriken geldialdi baten aurrean jokatzen jakitearen garrantzia go...

2018 (https://goierri.hitza.eus/2018)/05 (https://goierri.hitza.eus/2018/05)/31 (https://goierri.hitza.eus/2018/05/31)

A. Vierbücher

Bihar, ostirala, eta *Zure eskuek bizitza bat salba dezakete* lemapean, DYAk zazpigarren urtez jarraian, Bihotz Biriken Suspertze Eguna ospatuko du. Sentsibilizazio kanpaina honekin bihotz-biriken geldialdi baten aurrean jokatzen jakitearen garrantzia gogorarazi nahi dute.

Arrazoi horrengatik, urtero 30.000 pertsona inguru hiltzen dira, eta lehen 5 minututan bihotz-biriken suspertzea egi-teak biziraupena %70era igotzen du. Gainera, DYAk gogorarazi du «BBS teknika oso erraza» dela eta «nahiz eta formaziorik ez izan, ikasteko 10 minutu baino ez dira behar».

Ordizian larunbatean

Kanpaina honen barruan Gipuzkoako hainbat herritan izango dira DYAkoak eta larunbatean, Ordiziako Plaza Nagusian izango dira 11:00etatik 14:00etara. Bertara gerturatzen denak hainbat informazio mahai aurkituko ditu eta nahi duen orok, oinarrizko suspertze teknikak ikasi ahalko ditu doan.

Goierriko albisteak euskaraz, libre eta kalitatez jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa zaigu. Egin zaitez HITZAkide! Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.

Egin HITZAkide (https://goierri.hitza.eus/hitzakide/izan/)